

IKASLEEN OSASUN ARLOA PROTOKOLOA

Txosten honetan Azpeitiko Ikastola Ikasberri Koop.e.an osasun arloan jarraitu beharreko protokoloa jasotzen da. Bertan ikasleek Ikastolan izena ematean, gaixotasun egoeretan edo istripu kasuetan Ikastolako jarraitu beharreko pausoak eta bete beharreko dokumentazioa jasotzen da.

1. IKASTOLAN IZENA EMATEAN

Ikastolan izena eman nahi duen haurren batek, Ikastolan atentzioa behar duen osasun arazo edo alergiaren bat badu, guraso/tutore legalek Ikastolaren ardura duen zuzendaritzari jakinaraziko diote, osasun ziurtagiria aurkeztuz. (1. ERANSKINA, eta beharrezkoa izanez gero, MEDIKU AGIRIA). Ziurtagiriak honako hauek jasotzen ditu: osasun-arazoa eta eskola orduetan eman behar zaion arreta, espresuki adieraziz arretaren ezaugarriak: jarduerak eta medikaziorik behar izanez gero, dosiak.

Jadanik ikastolan dabilen haurren kasuan ere, Ikastolan atentzioa behar duen osasun arazo edo alergiaren bat hautematen bazaio, pauso berdina jarraitu beharko dira.

Zuzendaritzak haurraren tutoreari emango dio egoeraren berri eta hau izango da tutore aldaketa dagoenean tutore berria jakinaren gainean jarriko duena. Haurraren gaixotasun edo alergiaren jarraipena momentuko tutoreak egingo du.

Beharrezkoa ikusten bada, eta beti ere guraso/ tutore legalen oniritziarekin, haurrarekin lanean ari diren profesional guztiak informatuko ditu zuzendaritzak ikasle hauei zerbait gertatuz gero zer egin behar den guztiek garbi izateko.

2. GAIXOTASUN EGOERETAN

2.1. HH ETAPA

Etapa honetako ikasleei ez zaie sendagarririk emango. Ikasleren batek, ikastola orduan sendagarriren bat hartu behar badu, guraso/tutore legalei sendagarriak emateko baimen orria betetzeko eskatuko zaie. (2. ERANSKINA)

Haur Hezkuntzako haurrei ez zaie fruitu lehorrik emango.

A.-) HAURRA IKASTOLARA EZ EKARTZEKO OSASUN ARRAZOTIAK:

Ondorengo kasuetan ezingo da haurra ikastolara ekarri:

- Temperatura: 38°C koa edo gehiago badu.
- Birus eta gaitz kutsakorren baten kasuan.
- Bakteriek sortutako infekzioen kasuan, antibiotikoa hartzen hasi eta 24 orduko tarte igaro arte, beti ere ondo baldin badago.
(adibidez. Ahoko infekzioak,...)

B.-) HH ETAPAKO HAURRA IKASTOLATIK JASOTZEKO ESKATZEKO ARRAZOTIAK:

Ondorengo kasuetan irakasleak haurraren guraso/tutore legalei haurra ikastolatik jasotzeko eskatuz deituko die:

- Beherakoa: egunean 2 aldiz edo gehiagotan egitean.
- Botaka: egunean bi aldiz edo gehiagotan egitean.
- Temperatura: 38°C koa edo gehiago badu, edo nahiz eta gutxiago eduki haurra ondo ez badago.
- Ahoko granoak edo jagak baditu.
- Begi gorrituak, azalean granoak, barizela,...

Ikastolara itzuli eta kaka txarra edo botaka egingo balu berriz, aurrenekoan deituko litzaioke familiari.

C.-) GAIXOTASUN SINTOMAK DITUEN ZANTZUAK IKUSTEAN BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Haurrak izan dezakeen gaixotasunen baten zantzuak ikustean, irakasleek *haurrak gaixotasun kutsakorrik ez duela ziurtatzen duen agiria* eskatu ahal izango dio haurraren guraso/titular legalei. (3. ERANSKINA, eta beharrezkoa izanez gero, MEDIKU AGIRIA).

Ondorengoak dira gaixotasun zantzuak

- AHOKO GRANOAK EDO JAGAK (Aho infekzioak)
- BEGIAK GORRITUTA (Konjuntibitisa) AZALEAN GRANOAK ETA GORRITUAK (Barizela, gornia,...)

2.2. LH ETAPA

Etapa honetako ikasleei ez diegu sendagarririk emango. Ikasleren batek, ikastola orduan sendagarriren bat hartu behar badu, guraso/tutore legalei sendagarriak emateko baimen orria betetzeko eskatuko zaie. (2. ERANSKINA)

Ikasle bat gaizki sentitzen bada, irakasleari jakinarazi beharko dio. Honek etxera deituko du gurasoa bila etorri dadin, eta idazkaritzara lagunduko dio. Tutorea ere jakinaren gainean jarriko du. Gurasoa bertara etorriko da seme/alabaren bila.

2.3. DBH-DBHO ETAPA

Etapa honetako ikasleei ez diegu sendagarririk emango. Ikaslea bera izango da arduraduna sendagarria behar izatekotan.

Ikasle bat gaizki sentitzen bada, irakasleari jakinarazi beharko dio eta ikasleak etxera deitu dezan lagunduko dio. Gurasoen baimena jasotzen badu, ikaslea bakarrik joan ahal izango da etxera, bestela idazkaritzan egongo da norbaitek jaso bitartean.

3. ISTRIPU KASUETAN

- Irakasle berak sendatu dezakeena, norberak egin behar du. Botikina biltegian dago.
- Anbulatoriora eramatea komeni bada, baina presazkoa ez bada, gurasoei deituko zaie eta berauek eramango dute anbulatoriora.
- Arazoa larriagoa bada, idazkaritzatik anbulantziari deituko zaio.
- Presazkoa den kasuetan zuzendaritzako kide batek eramango du taxian edo kotxez, tutorea edo beste irakasle baten laguntzaz.

GAIXOTASUN EDO ALERGIA ZIURTAGIRIA

IKASLEAREN IZEN ABIZENAK
JAIOTEGUNA
GURASO/TUTORE LEGALAK
HARREMANETARAKO PERTSONA ETA TELEFONOAK:

Nik Ondorengo ikaslearen guraso/tutore legalak :.....

1. Ikaslearen osasunarekin zerikusia duten gorabeherak adierazi nahiko nituzke:

(X bat jarri dagokionean)

Diabetea	
Arnasestua	
Epilepsia	
.....sendagaiarekiko alergia	
.....elikagaiarekiko alergia	
Bestelakoak.....	
.....	
.....	

2. Eta hori ziurtatzeko, ondorengo dokumentuak gehitzen ditut:

(X bat jarri dagokionean)

Pediatra edota familiako medikuaren txostena, gaixotasunaren krisiren bat gertatuz gero jarraitu beharreko arauekin	
Pediatra edota familiako medikuaren txostena, eskola garaian hartu beharreko sendagaien dosi eta denborekin	
Bestelakoak.....	
.....	
.....	

3. **Baimena ematen dut** medikuaren medikoaren txostenean adierazitako arauak jarraitu edo sendagaiak emateko, betiere ziurtatuz sendagaia egoera onean dagoela eta tratamenduari segida emateko adinako dosia badagoela. Sendagaia eta bere kasuan materiala dakarkit eta behar bezala etiketatuta aurkezten dut (ikaslearen izena, data eta hartzeko ordua adieraziz).
4. **Ikastola eta sendagai-emailea erantzukizunetik salbuesten ditut**, goian adierazitako araei jarraituz jokatzeko badute.
5. **Adierazten dut** emandako datuak egiazko eta zuzenak direla eta konpromisoa hartzen dut gerta daitezkeen aldaketen berri emateko ikaslearen irakasle tutoreari.

.....(e)n,.....ko.....aren.....(e)an.

Guraso/tutore legalen sinadura.

SENDAGAIAK EMATEKO BAIMEN ORRIA

IKASLEAREN IZENA..... EGUNA.....

EMAN BEHARREKOA..... ZENBAT.....

ORDUA.....

Guraso/tutore legalen sinadura

Irakaslearen sinadura
(eman ondoren)

HAURRAREN OSASUN EGOERAREN AGIRIA

HAURRAREN IZEN ABIZENAK:

Nik,k, haurraren guraso/tutore legalak ,
Ikastolako profesional taldeari jakinarazten diot, haurraren osasun egoera kutsakorra ez dela, eta
haurra Ikastolara joateak ez duela beste haurrentzat inolako arriskurik.

.....(e)n,.....ko.....aren.....(e)an.

Guraso/tutore legalaren sinadura